

# Astigarragako Ibilbideak

Bizi Astigarraga modu berri batean





# Itinerarios de Astigarraga

Vive Astigarraga de un modo nuevo





## AURKIBIDEA


SARRERA: Bizi Astigarraga modu berri batean ..... (3. orr.)

1. IBILBIDEA: Astigarraga bete-betean ..... (7. orr.)

2. IBILBIDEA: Bizi ezazu natura Astigarragan ..... (21. orr.)

3. IBILBIDEA: Astigarraga eta euskal nekazaritza kultura ..... (39. orr.)

4. IBILBIDEA: Astigarragan txotx ..... (53. orr.)


## INDICE


INTRODUCCIÓN: Vive Astigarraga de un modo nuevo ..... (pág. 4.)

1^er^ ITINERARIO: Astigarraga al completo ..... (pág. 13.)

2º ITINERARIO: Vive la naturaleza en Astigarraga ..... (pág. 29.)

3^er^ ITINERARIO: Astigarraga y la cultura agrícola vasca ..... (pág. 45.)

4º ITINERARIO: Txotx en Astigarraga ..... (pág. 55.)



Testuak: Aurkene Alzua, Basagaitz Guereño,
Markel Mendizabal (Deustuko Unibertsitatea)

Gidaren edukia landu duen lan-taldeko partaideak:
Luzia Alberro, Bixente Arrizabalaga, Miel Joxe Astarbe,
Nerea Ollokiegi, Juantxo Zuaznabar

Argazkiak: Pastain Argazkiak, Trimagen, D&P Grafica,
Mendi Enara, Lurrailan eta Udal Fototeka

Koordinazioa: Amaia Usabiaga

Diseinua, maketazioa: Zirrimarra (Andoain)

Inprimaketa: Orvy Grafikak (Hernani)

- ISBN zenbakia: 978-84-931166-2-0
- Lege gordailua: SS-957-2007



N
ERRENTERIA
GI-2132
Benta
Langagorri
DONOSTIA
Mokorregi
Txoritokieta
123
Zarkumendegiko erreka
ZARKUMENDEGI
Inbiako gaina
273
Otzilurri
Landerbasoko erreka
Guardiko gaina
271
MURGIBASOA
Arkaitzaundi
Aizelepo
Arkaitztxiki
Santiagomendi
300
Ermaña
Atxurrumendi
283
Agiñeta
302
Añarregi
Akullartetxiki
Akullarteaundi
Antoñako erreka
Antoñamendi
123
Menditxiki
117
Errekalde
HERNANI
116
Mendiaundi
Santiagomendi
Ubarburu industrialdea
Portutxo
Gurutzeta
Oianumeko erreka
DONOSTIA
Bidebitarte industrialdea
Zamoka industrialdea
Oianume
Urumea Ibaia
Erribera
Ergobia
GI-131
1. IBILBIDEA-ITINERARIO
2. IBILBIDEA-ITINERARIO
3. IBILBIDEA-ITINERARIO
4. IBILBIDEA-ITINERARIO
Página 52 orrialdean

# BIZI ASTIGARRAGA MODU BERRI BATEAN



© PASTAIN

Astigarragara hurbiltzera gonbidatzen zaitugu, hiritik gertu dagoen herria bisitatzera. Presta zaitez esperientzia berri bat bizitzera, harridura sortu eta ahaztezina izango zaizu eta.

Astigarraga modu berri batean ezagutzeko aukera eskaintzen dizugu, historia, ohiturak eta euskal kultura ezagutzeaz gain, herritarren abegi onaz eta bertako gastronomiaz eta naturaz gozatzeko modu aparta eskainiz.

Aukera paregabea Euskal Herriko herri izaera duen leku bat bisitatzeko. Gainera, aisialdi eta dibertimendurako eskaintza ugari topatuko duzu bertan.

Baliatu egokiera paregabe hau eta gozatu Astigarraga berri batez.

## ASTIGARRAGAKO HISTORIAKO UNE GARRANTZITSUAK

1) Astigarragako lehen biztanleen aztarnak: Santiagomendiko indusketa (K.a. IV-I. mendeak)
2) Ziurrenik Murgiaren lehen aipamena erromatarren garaian "Morogui" gisa (I. mendea)
3) Donejakue bideko erromesak Astigarragatik igarotzea (XI-XIII. mendeak)
4) Murgia eta astigartarren arteko harremanak: Aiztondoko Alkatetza Nagusia eta Ahaide Nagusiak (XIV-XVII. mendeak)
5) Astigarraga udalerri bihurtzea (1660)
6) Astigarraga Karlistaldien lekuko (XIX. mendea)
7) Errege Bideak Astigarragara lehen bisitariak ekartzea, turismoaren hastapenetan (XVIII-XIX. mendeak)
8) *Belle Epoque* garaiak herrira aldaketak ekartzea (turismoa, tranbia) (XX. mendearen hasiera)
9) Euskal Kulturaren adierazpenak: Jose Elzo, Txomin San Sebastián, etab. (XX. lehen erdialdea)
10) Astigarraga 1943an Donostiaren auzo bihurtzea, bi urte lehenago Udalak erabaki ostean
11) Astigarraga herri independente gisa eratzea (1987)



© TRIMAGEN

# VIVE ASTIGARRAGA DE UN MODO NUEVO

Te invitamos a acercarte a Astigarraga, a visitar un pueblo cercano a la ciudad. Prepárate para vivir una nueva experiencia que, además de asombrarte, te resultará inolvidable.

Te ofrecemos la posibilidad de conocer Astigarraga de un modo diferente, poniendo en tu mano su historia, sus costumbres y la cultura vasca, aderezándolo todo con el carácter acogedor de sus gentes, y añadiendo la posibilidad de disfrutar de su gastronomía y de su entorno natural.

Es una oportunidad sin igual para visitar un lugar donde se respira el carácter de Euskal Herria, el cual, además, te ofrece múltiples oportunidades para disfrutar del ocio.

Aprovecha esta ocasión, y disfruta de un nuevo Astigarraga.

## HITOS FUNDAMENTALES EN LA HISTORIA DE ASTIGARRAGA

1) Huellas de los primeros pobladores de Astigarraga: excavación de Santiagomendi (siglos IV-I a.C.)
2) Posible primera cita de Murgia como "Morogui", en época romana (siglo I)
3) Paso de los peregrinos del Camino de Santiago por Astigarraga (siglos XI-XIII)
4) Relaciones entre Murgia y Astigarraga: Alcaldía Mayor de Aiztondo y Parientes Mayores (siglos XIV-XVII)
5) Astigarraga se convierte en municipio (1660)
6) Astigarraga testigo de las Guerras Carlistas (siglo XIX)
7) El Camino Real trae los primeros visitantes a Astigarraga, en los comienzos del turismo (siglos XVIII-XIX)
8) La *Belle Epoque* trae diversos cambios al municipio (turismo, tranvía) (comienzo del siglo XX)
9) Expresiones de cultura vasca: Jose Elzo, Txomin San Sebastián, etc. (primera mitad del siglo XX)
10) Astigarraga se convierte en barrio de San Sebastián en 1943, tras la decisión tomada dos años antes por el Ayuntamiento.
11) Astigarraga se constituye en municipio independiente (1987)

# 1. IBILBIDEA ITINERARIO































1.
IBILBIDEA
ITINERARIO
7,5 km
N
Arkaitzaundi
Aizelepo
Arkaitztxiki
Zarkumendegi
Guardiko Gaina
271
Santiagomendi
300
Ermaña
Agiñeta
302
11-12
13-14
10
9
8
Errekalde
Santiagomendi
Gurutzeta
Bidebitarte industrialdea
Zamoka industrialdea
Ergobia
15
16
17
Erribera
Urumea ibaia
GI-131
Sagardoaren museoa
Gizarte Kultur etxea
PL JOSEBA BARANDIARAN
TOMAS ALBA KL
KL NAGUSIA
GI-2132
20
19
2
1
3-4
5
6
7
18
PELOTARI KL
MURGIA
AMARRANDEGI KL
FORU PL
Pilota-Lekua
SANTIAGO ZEHARRA
Ikastola
Kiroldegia
DONOSTIA PS
GI-131
ERGOBIA PS
Bidebitarte industrialdea




© PASTAIN

© D&P GRAFICA

7,5 km

# 1. IBILBIDEA:

## Murgiaren ingurua

## Astigarraga bete-betean

Astigarragan espero ez dituzun gauzak aurkituko dituzu. Historia zaharrak, ohiturak, pertsonaia esanguratsuak, etab., dena modu erakargarri batez aurkeztua.

Era lasai eta pertsonal batean jarraitu lehenagoko astigartarren pausoak eta murgildu gure aitona-amonen garaian.



### 1 Jasokundeko Andra Mariaren eliza

Herriko goi-gune batean kokatua, udalerriko beste eraikin gehienen artean gailentzen da. Izatez XIII. mendekoa da, nahiz eta gerora zaharberritze eta gehitze lan ugari izan dituen (sakristia eta arkupea). Gurutze latindarreko oinplanoa du eta gurutzeriazko gangek estaltzen dute. Barrualdean korua nabarmentzen da, eta kanpoaldean hogeita bost metroko dorrea eta bere erlojua, 1840an Bordeletik ekarria.

### 2 Kanpaien seinaleak

Dorre horretan dauden kanpaiek, bere soinu esanguratsuarekin, garai batean herriko bizitza zibila eta erlijiosoa antolatzen zuten, besteak beste arriskuen berri emanez.

### 3 Murgia jauregia

Herrian markesak izan duen garrantzi eta boterearen erakusle nagusi, eliza kokatzen den muino berean dago. Hasiera batean gotorleku edo dorretxe gisa erabilia, bertan Murgiako jaunek bere indarraren bitartez jauntxo gisara jarduten zuten inguruetan, Ahaide Nagusi gisa alegia. XV. mendearen bukaeran, Ahaide Nagusien gainbeheraren ostean, dorretxea etxebizitza zibil bilakatu zen. Gaur egungo eraikina XIX. mendearen bukaerakoa da eta markesarena izaten jarraitzen du.



© DANIELE MEROI

### 4 Astigarraga eta Murgiatarrak

Astigarragako biztanleen eta Murgiako jaunen arteko harremanek garrantzi handia izan dute udalerriaren identitatearen sorreran. Erdi Aroan (XIV-XV. mendeetan) Murgiako familiak astigartarrak babesteko konpromisoa hartu zuten hainbat zerbitzu eta ondare jasotzearen truke. Mende batez izandako boterea galtzen joango ziren, ordea, XV. mendearen bukaeran izandako Bando Gerrateetan porrota jaso ostean. Azkenik, 1660an, Astigarragak udalerri bihurtzea lortu zuen. Hala ere, orain dela gutxi arte markesaren familiak bere indarra mantendu du udalerrian zituen jabetzak medio, inguruko lurralde eta baratza asko zeuzkaten eta artean.

### 5 Murgiondo etxea

Murgiako muinoaren ondoan dagoen eta lau mende dituen kale-baserria da. Markesarena izatez, bertan honen administratzaile zena bizi zen, Ollokiegi familiakoa, baserritarren errentak kobratzen zituena eta mendiak zaintzeaz arduratzen zena. Geroago sagardotegi bihurtua, fama handia hartu zuen 70eko hamarkadan eta garai hartan pilotari eta soldaduak zituen bezero nagusitzat.

## Hirigunea

### 6 Norberto Almandoz

Herriko musikagile eta konpositore famatua, Astigarragako Foru plazan jaioa. Nahiz eta ia-ia bizitza osoa Sevillako katedraleko kaperako maisu eta kalonje gisa eman, inoiz ere ez zuen Astigarraga ahaztu. Udalak 1993an "herriko seme kuttun" izendatu zuen.

### 7 Udaletxea

XVIII. mendearen hasieran eraikia, herriak bizi zuen oparotasun eta hazkunde demografikoaren erakusle nagusia. Eraikinak zenbait arkuz osatutako arkupea du eta fatxadan jendaurreko egitekoetarako ohiko balkoiak.

## Santiagomendiko bidea

Hirigunea atzean utzirik, Astigarragako lehen biztanleak bizi ziren kokalekura bideratuko gara. Santiagomendi auzorako bisita ezinbestekoa da udalerriaren jatorria ezagutzeko eta garai bateko bizitzan murgiltzeko.

**8 Plazaetxea**

Sarreran erdi-puntuko arku bikoitza du eta, honen gainean, erromes-kuskuez horniturikoa armarria, sinoplezko haitzen gainean.

**9 Iriarte baserria**

Tradizioaren arabera, herriko antzinako elizaren hondakinak gordetzen dituen baserria. Iriarte baserriaren alde batean dauden horma eta erdi-puntuko arku monolitiko itxiko sarrera dira eraikin haren lekuko.

**10 Goikoetxea**

Santiagomendi auzoaren irteeran dago, ermitarako bidean. Arku erako sarrera dauka eta honen giltzarrian JHS laburdura eta Maltako gurutzea erakusten ditu. Baserri honen alboan frantses estiloko karobi aparta dago, landan erabiltzeko karea kiskaltzeko balio izan zuena.

© PASTAIN




© J.I. GARCIA VELILLA



## Santiagomendi

### 11 Santiagomendiko gailurra

Santiagomendiko gailurrean panoramika zoragarriaz goza daiteke, Baionatik Donostiarako kosta zatia eta Gipuzkoako eta Nafarroako mendiak begien aurrean ikus ditzakegu. Besteak beste, toki honetako kokapen estrategikoa dela-eta, indusketa arkeologikoak egiten hasi ziren eta, honen ondorioz, Burdin Aroko (800 Ka.-19 K.a.) herrixka agertu zen. Horretaz gain, Kostako Donejakue Bidean geldiune esanguratsua da leku hau, bertako eraikin nagusiak adierazten duen bezala. Aldi berean, leku honetatik igarotzen zen, Irun eta Oiartzundik etorrita, Bidasoako lurrak Hernani eta Gipuzkoa barnealdearekin lotzen zituen antzinako bidea.

### 12 Santiagomendiko ermita

Beranduenez XVI. mendekoa dela esan daiteke, 1525ean aipatzen baita lehen aldiz. Done Jakue apostoluaren kultuari eskainitako ermita da, gailurrean aurkitutako fosil batzuen ondorioz apostolua lur horietatik igaroa zela pentsatu baitzuten herritarrek. Ermita eraikin errektangelu handia da eta eskuineko paretari itsatsita aterpetxea dago. Barnealdeari dagokionez, XVI. mendeko bi gorputzeko erretaula ikus daiteke erdiko zonaldean, Santiago Matamorosen behe-erliebe batekin. Aldarean XIII. mendeko erromes baten itxura duen alabastroko eskulturaren kopia bat ikus daiteke. Orain dela gutxi, zaharberritze lanak egiten ari zirela, geometri eta landare formako pinturak agertu ziren.







© UDAL FOTOTEKA

Santiagomendiko gailurretik ateratako argazkia

### 13 Blankolariak

XVIII. mendetik Pazko hirugarrenez Santiagomediko ermitan egiten zen mezaren ostean, ermitaren hegoaldean diana-tiroan aritzen ziren. Alkatea eta erretorea izaten ziren lehenak tiro egiten, eta inguruetako baserritarrek apustu ugari egiten zituzten joko honen inguruan.

### 14 Karlistaldietako pasadizoak

Santiagomendi borroka bat baino gehiagoren lekuko isila izan da. Hauen artean, Gipuzkoa eta Euskal Herria orokorrean zatikatu zuten XIX. mendeko Gerra Karlistak daude. Astigarraga tiro lerroaren erdian kokaturik gelditu zen eta gailurrean karlistak zeuden bitartean, Hernanin tropa liberalak kokatu ziren.




© UDAL FOTOTEKA

© UDAL FOTOTEKA



## Ergobia

### 15 Ergobia auzoa

Ergobia auzoak bere identitatea eta berezitasunak mantendu ditu mendeetan zehar. Gipuzkoako Errege Bidearen erpinean egotea eta markesaren jabetzakoa izatea izan dira identitate eta berezitasun horien eragile nagusiak.

### 16 Ergobiako zubia

XVIII. mendeko zubi hau Frantziatik probintzia barnealderako komunikabide nagusia zen eta Errege Bidea bertatik igarotzen zen, Astigarraga bide garrantzitsuen gurutzagune bihurtuz.

17 **Urumea Ibaia**

Urumea ibaiari jarraituz bi gizarte eta bi bizimodu mota aurkitu genitzakeen garai hartan. Esaterako, *Belle Epoque* garaian (XIX. mendearen bukaera eta XX. mendearen hasiera) udalerriko emakumeek Donostiatik ekarritako arropa garbitzen zuten ibaian zehar. Garai bertsuan, uda Donostian igarotzen zuten aristokratek Donostiatik Astigarragako sarrerarainoko txangoak egiten zituzten ibaian gora. Ibaian izandako lau portuek ahalbidetu zuten Donostiarekiko harreman ekonomikoa. Portu horien aztarna toponimian gorde da: Portutxo, Portuburu...

## Hirigunea

18 **Amarrandegi kalea**

XIX. mendea arte inguru honetan zegoen Amarrandegi izeneko etxean Markesaren maizterrek hamarrenak kobratzen zituzten haren izenean.

19 **Pilotari kalea**

Herri sinesmenaren arabera, leku honetatik elizarainoko pasadizoa zegoen.

20 **Astigarragako Kale Nagusia**

Errege Bidea Kale Nagusitik igarotzen zen. Bide hori Gipuzkoako garraiobide nagusia izan zen XIX. mendearen erdialdera arte eta Frantziatik Gipuzkoa barnealdera igarotzen zen.

© UDAL FOTOTEKA







© PASTAIN



7,5 km

1er

# ITINERARIO: Zona de Murgía

© TRIMAGEN

## Astigarraga al completo

En Astigarraga encontrarás multitud de cosas inesperadas. Viejas historias, costumbres, personajes conocidos, etc., todo ello presentado de un modo atractivo.

Ahora, tranquilamente y de un modo personal, sigue los pasos de los antiguos habitantes del pueblo, y zambúllete en el tiempo de nuestros abuelos.



1

© PASTAIN

### 1 Iglesia de Nuestra Señora de la Asunción

Se encuentra situada en un alto del municipio, y destaca sobre el resto de edificios del mismo. Data del siglo XIII, aunque en épocas posteriores ha conocido varios trabajos de restauración y ampliación (sacristía y pórtico). Tiene planta de cruz latina y está cubierta por bóvedas de crucería. En el interior destaca el coro y en el exterior la torre de veinticinco metros, con su reloj, traído de Burdeos en 1840.

### 2 Señales por medio de campanas

Las campanas situadas en la citada torre, con su sonido característico, servían para organizar la vida civil y religiosa del pueblo, por ejemplo dando aviso ante peligros inminentes.

### 3 Palacio Murgia

Clara muestra de la importancia y poder que ha tenido el marqués en el pueblo, situada en el mismo altozano en el que se encuentra la iglesia. En un principio fue utilizado como fortaleza y casa-torre en la época en la que los señores de Murgia utilizaban su poder actuando como señores de la zona, como Parientes Mayores. Al final del siglo XV, tras la decadencia de los Parientes Mayores, la casa-torre fue transformada en vivienda. El edificio actual data de finales del siglo XIX, y todavía pertenece a la familia del marqués.




© TRIMAGEN

### 4 Astigarraga y los Murgia

Las relaciones entre los habitantes de Astigarraga y los señores de Murgia han sido sumamente importantes a la hora de formar la identidad del municipio. En la Edad Media (siglos XIV-XV) la familia Murgia se comprometió a defender a los habitantes del pueblo a cambio de diversos servicios y bienes. Poco a poco fueron perdiendo el poder que poseyeron durante un siglo, tras su derrota en las Guerras de Bandos de finales del siglo XV. Finalmente, en 1660 Astigarraga consiguió convertirse en municipio. Aún así, hasta hace relativamente poco tiempo los marqueses han mantenido su fuerza gracias a las posesiones que tenían en el municipio, ya que seguían siendo propietarios de multitud de terrenos y huertas en la zona.

### 5 Casa Murgiondo

Caserío situado en el casco urbano, junto al alto de Murgia, con una antigüedad de cuatro siglos. Era propiedad del marqués, y en el mismo vivía su administrador, un miembro de la familia Ollokiegi, encargado de cobrar la renta a los baserritarras y del cuidado de los montes. Posteriormente fue convertida en sidrería, y logró gran fama durante la década de los 70. En aquella época sus clientes principales eran pelotaris y soldados.

## Casco urbano

### 6 Norberto Almandoz

Famoso músico y compositor, nacido en Foru Plaza de Astigarraga. A pesar de haber pasado prácticamente toda su vida como maestro de capilla y canónico de la catedral de Sevilla, jamás olvidó Astigarraga. El Ayuntamiento le nombró "hijo predilecto" en 1993.

### 7 Ayuntamiento

Construido a comienzos del siglo XVIII, muestra claramente una época de prosperidad y crecimiento demográfico en la población. El edificio dispone de un pórtico de cinco arcos, al igual que varios balcones para los actos públicos.

## Camino de Santiagomendi

Dejando atrás el casco urbano, nos encaminamos al lugar donde vivieron los primeros pobladores de Astigarraga. La visita al barrio de Santiagomendi es imprescindible para conocer el origen del municipio y para zambullirnos en un modo de vida ya pasado.

© PASTAIN



Barrio de Santiagomendi

### 8 Caserío Plazaetxea

Conserva un doble arco de medio punto en su entrada, junto con un escudo decorado con veneras de peregrinos sobre rocas de sinople.

### 9 Caserío Iriarte

Según la tradición, es el caserío que guarda los restos de la antigua iglesia del pueblo. El muro que encontramos en uno de sus laterales y la entrada con arco de medio punto cegado serían los testigos de aquel primer edificio.

### 10 Caserío Goikoetxea

Situado en la salida del barrio de Santiagomendi, en el camino de la ermita. Tiene un arco en la entrada, y en su clave la abreviatura JHS y la cruz de Malta. Al lado de este caserío encontramos una extraordinaria calera de estilo francés, utilizada como horno de calcinación para la cal utilizada en el campo.

© PASTAIN



8

© PASTAIN



## Alto de Santíagomendí

### 11 Cumbre de Santiagomendi

Desde la cumbre de Santiagomendi disfrutamos de una panorámica extraordinaria. Ante nuestros ojos tenemos todo el tramo de costa entre Baiona y San Sebastián, junto con los montes de Gipuzkoa y Navarra. Llevados por la situación estratégica de este enclave, se comenzó a realizar en el mismo excavaciones arqueológicas, que han dado como resultado el descubrimiento de un poblamiento de la Edad del Hierro (800-19 a.C.). Además, este lugar es una importante parada en el ramal del Camino de Santiago que discurre por la costa, tal como lo atestigua el principal edificio que encontramos. Del mismo modo, por este lugar pasaba el antiguo camino que unía las tierras del Bidasoa, desde la zona de Irun y Oiartzun, con Hernani y el interior de Gipuzkoa.

### 12 Ermita de Santiagomendi

Podemos afirmar que, como poco, es del siglo XVI, ya que en 1525 aparece citada por primera vez. Está dedicada al culto al apóstol Santiago, a consecuencia de la aparición en la cumbre de varios fósiles, que impulsaron la creencia de que eran la prueba del paso del apóstol por el lugar. La ermita es un gran edificio rectangular, y adosado a su pared derecha se encuentra un albergue. En lo que se refiere al interior, en la zona central tiene un retablo de doble




© UDAL FOTOTEKA

cuerpo del siglo XVI, con un relieve de Santiago Matamoros. En el altar, podemos ver una copia de una escultura de alabastro que representa a un peregrino del siglo XIII. Durante los trabajos de reforma realizados recientemente, se han descubierto diversas pinturas de formas geométricas y plantas.

© UDAL FOTOTEKA




### 13 Tiro al blanco

Desde el siglo XVIII, después de la misa del tercer día de Pascua, al sur de la ermita era costumbre jugar al "tiro al blanco". Los primeros en tomar parte solían ser el alcalde y el cura, y los baserritarras de los alrededores realizaban muchas apuestas en torno a las pruebas.

### 14 Peripecias de las Guerras Carlistas

La colina de Santiagomendi ha sido testigo silencioso de más de una lucha. Entre ellas se encuentran las Guerras Carlistas que, durante el siglo XIX, dividieron Gipuzkoa y Euskal Herria en general. Astigarraga se encontraba en medio de la línea de fuego, y mientras los carlistas tomaban posiciones en la cumbre, las tropas liberales se situaban en Hernani.

## Ergobia

### 15 Barrio de Ergobia

El barrio de Ergobia ha mantenido su identidad y sus peculiaridades durante siglos, forjadas, por un lado, por el hecho de encontrarse en el vértice del Camino Real de Gipuzkoa, y, por otro, por ser una pertenencia del marqués.

### 16 Puente de Ergobia

Este puente del siglo XVIII era la principal vía de comunicación desde Francia hacia el interior de la provincia y el Camino Real pasaba por el mismo. Así, Astigarraga era un importante cruce de caminos.

17 **Río Urumea**

En aquella época, siguiendo el curso del río Urumea podíamos encontrar dos sociedades y dos modos de vida. Las mujeres del pueblo, durante la *Belle Epoque* (finales del siglo XIX y principios del XX), se dedicaban a limpiar en el río la ropa traída de San Sebastián. Por la misma época, los aristócratas que acudían a San Sebastián a pasar el verano hacían excursiones por el río hasta la entrada de Astigarraga. Finalmente, el río se convirtió en un medio para las relaciones económicas con San Sebastián, por medio de los cuatro puertos que se encontraban en el municipio, y que hoy nos han dejado su huella en la toponimia (Portutxo, Portuburu, ...).

## Casco urbano

18 **Calle Amarrandegi**

Hasta el siglo XIX, el inquilino de la casa Amarrandegi, actualmente desaparecida y sita en este lugar cobraba los diezmos en nombre del Marqués.

19 **Calle Pilotari**

Según la creencia popular, existía un pasadizo desde este lugar hasta la iglesia.

20 **Calle Mayor**

Por esta calle transcurría el Camino Real, principal vía de comunicación de la provincia hasta el siglo XIX, que desde Francia se dirigía hacia el interior de Gipuzkoa.

© UDAL FOTOTEKA







© PASTAIN

## 2. IBILBIDEA
## ITINERARIO

A. IBILBIDE LUZEA / ITINERARIO LARGO — 12 km

B. IBILBIDE ERTAINA / ITINERARIO MEDIO — 8 km

C. IBILBIDE MOTZA / ITINERARIO CORTO — 7 km




© TRIMAGEN


© TRIMAGEN


© UDAL FOTOTEKA




10
© UDAL FOTOTEKA


14
© D&P GRAFICA


15
© LURRAILAN


B-13

## 2.


IBILBIDEA
ITINERARIO
N
Langagorri
Benta
Mokorregi
Txoritokieta
123
Inbiako gaina
273
Guardiko gaina
271
Santiagomendi
302
8-9-10
Ermaña
Agiñeta
302
Menditxiki
117
Mendiaundi
118
Errekalde
Santiagomendi
Portutxo
Gurutzeta
Oianume
Ergobia
Erribera
Urumea ibaia
GI-131




# 2. IBILBIDEA:

## Murgiaren ingurua

## Bizi ezazu natura Astigarragan

**Naturaz gozatzeko aukera** berri bat eskaintzen dizugu, ingurua baloratuz, ulertuz eta errespetatuz. Bizi ezazu garai bateko euskaldunek naturarekin zuten harremana modu erakargarrian.



**1 Murgia jauregiko lorategia**

XX. mendearen hasieran sortutako eta Frantziatik etorritako ideien arabera antolatutako lorategia. Bertan aurkitu daitezke platanoa, ereinotza edo erramua, hagina, astigarra, haritza eta gorostia, besteak beste, baita garai batean markesaren jauregira etortzen ziren bisitariek bere sorlekuetatik ekarritako zuhaitzak: tulipa-arbola...

## Hirigunea

**2 Goiko Iturriko parkea**

Edertasun bereziko txoko honek naturaz gozatzeko aukera ematen du udalerri erdian. Santiagomenditik datozen urak biltzen dituzten lurrazpiko akuiferoa eta errekatxoa ditugu bertan. Akuifero honen inguruan oraindik imajina ditzakegu emakumeak Donostiatik ekarritako arropa garbitzen, edota errota lanean ari dela bertako uraren indarraz baliatuta. Gainera, Donostia-Hernani tranbiaren bidea egiteko harria leku honetan zegoen harrobitik atera zen.

**3 Udaletxea**

XVIII. mendearen hasieran eraikia, herriak bizi zuen oparotasun eta hazkunde demografikoaren erakusle nagusia. Eraikinak bost arkuz osatutako arkupea du eta fatxadan jendaurreko egitekoetarako ohiko balkoiak.

## Santiagomendiko bidea

Ergobiatik Santiagomendiko gailurrerako bidean udalerriko baserri esanguratsuenak daude, bere balio historikoa gorde dutenak alegia.

**4 Plazaetxea**

Sarreran erdi-puntuko arku bikoitza du eta, honen gainean, erromeskuskuez horniturikoa armarria, sinoplezko haitzen gainean.

**5 Iriarte baserria**

Tradizioaren arabera, herriko antzinako elizaren hondakinak gordetzen dituen baserria. Iriarte baserriaren alde batean dauden horma eta erdi-puntuko arku monolitiko itxiko sarrera dira eraikin haren lekuko.

**6 Goikoetxea**

Santiagomendiko auzoaren irteeran dago, ermitarako bidean. Arku motako sarrera dauka eta honen giltzarrian JHS laburdura eta Maltako gurutzea erakusten ditu. Baserri honen alboan karobi aparta dago, frantses estilokoa, landan erabiltzeko karea kiskaltzeko balio izan zuena.

**7 Bortanea**

Baserri hau eraberrituta dago eta zati desberdinez osatuta dago. Interesa duen zatia iparraldean dago, bertan baita Erdi Aroan (XV. eta XVI. mendean) jatorria duen horma. Honetan erdi-puntuko arkuko sarrera eta bi leiho konopial eta gezi-leihoak agertzen dira.




© PASTAIN



## Santiagomendi

### 8 Santiagomendiko gailurra

Santiagomendiko gailurrean panoramika zoragarriaz goza daiteke, Baionatik Donostiarako kosta zatia eta Gipuzkoako eta Nafarroako mendiak begien aurrean ikus ditzakegu. Horretaz gain, Kostako Donejakue Bidean geldiune esanguratsua da leku hau, bertako eraikin nagusiak adierazten duen bezala. Horrela, Astigarraga apostoluarenganako gurtzaren lekurik esanguratsuenetako bat bihurtu da Gipuzkoan. Aldi berean, leku honetatik igarotzen zen Irun eta Oiartzundik etorrita Bidasoako lurrak Hernani eta Gipuzkoa barnealdearekin lotzen zituen antzinako bidea. 1998 urtetik aurrera indusketa arkeologikoak egin zituzten gailurraren hegoaldean. Bertan Burdin Aroko (800 K.a.-19 K.a.) herrixka agertu zen, harresiz edo lubanarroz inguratua. Arkeologi ondare hau, Burdin Aroari dagokionez, Gipuzkoan aurkitutako garrantzitsuenetakoa da.

© TRIMAGEN



### 9 Santiagomendiko ermita

Done Jakue apostoluaren kultuari eskainitako ermita. Honi buruzko lehen aipamena 1525ekoa da. Ermitaren sorrerak gailurrean aurkitutako "Belemnites" (bastoi formakoa) eta "Pecten Aequivalvis" (erromesen maskorra) fosilekin du zerikusia, herritarren sinesmena fosil horiek apostolua lur horietatik igaro izanaren testigantza zirela baitzen.

### 10 Santiagomendiko natur eskola

Natur ingurune paregabe honetan, ingurumena maitatu eta errespetatzen ikasteko helburua duten eskolak eskaintzen dira. Bertan eskola-umeek badute aukera hainbat jardueraren bidez inguru honetaz gehiago gozatzeko.

### 11 Ermaña

Ermaña izeneko lekuan dagoen dolina edo torka abiapuntu harturik, Astigarragako ingurune naturala ezagutzeko hiru aukera ditugu, ondorengo hiru ibilbideetan jasotzen diren hirurak alegia.






© UDAL FOTOTEKA




© UDAL FOTOTEKA

## A. IBILBIDE LUZEA

12 km

Astigarragako ingurune guztia ezagutu nahi izanez gero, bide luzea egitea komeni da, eta ibilbide lasaiagoa egin nahi izanez gero, berriz, beste bideak dituzu aukeran.

### A 12 Manisenea

Baserri honen inguruan Kretazikoko hainbat arroka mota ikus daitezke. Landak eta jatorriz bertakoak diren zuhaitz koniferoez ere gozatu daiteke (gaztainondoa, urkiak, etab.). Inguru honen paisaia aldetiko interesa bere zelai eta koniferoez egin basoberritzeetan dago.

### A 14 Langagorriko zizta erako hobia

Errenteria eta Astigarragako mugatik gertu kokatua, Burdin Aroan du jatorria. Gurutze hankaduna du grabatu gisa. Harri azpian, zista erako hilobi izaerako aztarnategia agertu da. Honetan material ugari aurkitu da (silexezko harri-puskak). Hemendik gertu, ia Donostiako lurretan, Aizbitarte III eta IV kobak daude, Astigarraga inguruetako lehen biztanleen egoitza izanak hain justu.

© PASTAIN




### A 13 Landarbasoko bidea

Manisenetik abiatuta eskuinaldera hartzen da bidea udalerriko hegoaldea bisitatzeko. Bertan historiaurreko aztarna ugari aurkituko dugu.

## A. IBILBIDE LUZEA

Langagorritik berriro Manisenera abiatuz, pausoak Txoritokieta ingurura bideratzen dira. Bide honetan guztian ikus daitezke Astigarraga eta Errenteriaren arteko muga zehazten duten harriak. Mugarri hauen inguruan liskar ugari egon zen Erdi Aroko mendeetan.

© LURRAILAN




### A 15 Txoritokietako menhirra

Gaur egun Astigarraga eta Errenteriaren arteko mugarrietako bat da. Burdin Aroan du jatorria, nahiz eta erromatarrekin eta historiaren hastapenetan ere garrantzia izan. Leku honetako landaretza zelai, laborantza eta landez osatuta dago. Errenteriako bidean haritz, urkiak eta pagoak ikus ditzakegu.

### A 16 Tabla Baserria

Hirigunera gerturatuz, Tabla baserrian gasometro bat ikus dezakegu. Instrumentu hauek simaurretik ateratako gasen aprobetxamendurako balio dute.

© PASTAIN



## B. IBILBIDE ERTAINA

8 km

Ermañatik abiatuz *Buenabista* baserriarekin egingo dugu lehenik topo. Ibilbidean aurrera jarraituz Pikoaga baserria igaroko dugu eta ondoren bi baserri interesgarritara iritsiko gara.

### B 12 Artola

Astigarragako baserririk zaharrena da. Honi buruzko lehen aipamenak 1400ekoak dira. Gaur egun guztiz berriztatua dago.

### B 13 Arrozpide ("Arraspine")

Bere adierari so eginez gero, aspaidian erromesen ostatua zela pentsa daiteke (*arrotz-bide*). Bere hormetako harrietan oskol fosil ugari ikus ditzakegu.



© PASTAIN



B 14

### B 14 Irauntza ("Ioltza") baserria

Baserri honetan solifluxio fenomeno bat ikus dezakegu. Solifluxioa basamentu egonkor batean dauden lokatz masen desplazamendua da, lokatz bihurtzeko aukera duten materialetan ur kantitatea handitzearen eraginez sortzen dena.

## B. IBILBIDE ERTAINA

### Ergobia

B 15 **Ergobia auzoa**

Ergobia auzoan nekazaritza zen lanbide garrantzitsuena. Hala ere, urak eta itsasoak emandako aukerak erabiltzen ere jakin izan zuten bertakoek. Leku honetan eta herriko beste txokoetan zeuden portuen bidez Urumean barrena merkantziak garraiatzen zituzten Donostia eta Astigarraga bitartean, elkartruke ekonomikoa ahalbidetuz horrenbestez.




© UDAL FOTOTEKA

## C. IBILBIDE MOTZA

7 km

Ermaña alde batera utzita, herrira zuzenago eramango gaituen beste ibilbide lasaiagoa aukeratu dezakegu. Santiagomendiko gailurraren iparraldetik igarotzen da ibilbide hau, eta natura paregabeaz gozatzeko aukera ematen du, bidean Etxeluze, Larrabide eta Guardia baserrien ondotik eta Errekalde auzoaren erditik igarotzeaz batera.



© TRIMAGEN

# 2º ITINERARIO:

## Zona de Murgía

## Vive la naturaleza en Astigarraga

Te ofrecemos una nueva manera de disfrutar de la naturaleza, valorando, comprendiendo y respetando el entorno. Ahora puedes vivir, de un modo muy atractivo, la relación que los vascos de antaño mantenían con la naturaleza.



**1 Jardín del palacio de Murgia**

Jardín creado a comienzos del siglo XX, siguiendo las tendencias llegadas desde Francia. En el mismo podremos encontrar, entre otras especies de plantas, plátanos, laureles, tejos, arces, robles y acebos. Así como árboles traidos de sus lugares de origen por los visitantes del palacio (Liriodendro).

### Casco urbano

**2 Parque de Goiko Iturri**

Este hermoso lugar nos ofrece la oportunidad de disfrutar de la naturaleza en el centro mismo del municipio. En él se encuentran el acuífero subterráneo y el riachuelo que recogen las aguas de Santiagomendi. Todavía podemos imaginar a las mujeres limpiando la ropa traída de San Sebastián alrededor de este acuífero o los molinos movidos por la fuerza de sus aguas. La propia piedra utilizada para la construcción del camino del tranvía San Sebastián-Hernani fue obtenida de la cantera que se encontraba en este lugar.

**3 Ayuntamiento**

Construido a comienzos del siglo XVIII, muestra claramente una época de prosperidad y crecimiento demográfico de la población. El edificio dispone de un pórtico de varios arcos, al igual que varios balcones para los actos públicos.

## Camino de Santiagomendi

En el trayecto entre Ergobia y la cumbre de Santiagomendi encontraremos los caseríos más significativos del municipio, los que todavía conservan su valor histórico.

### 4 Casa Plazaetxea

Conserva un doble arco de medio punto en su entrada, junto con un escudo decorado con veneras de peregrinos bordadas que acotan un castillo sobre rocas de sinople.

### 5 Caserío Iriarte

Según la tradición, es el caserío que guarda los restos de la antigua iglesia del pueblo. El muro que encontramos en uno de sus laterales y la entrada con arco de medio punto cegado serían los testigos de aquel primer edificio.

### 6 Caserío Goikoetxea

Situado en la salida del barrio de Santiagomendi, en el camino de la ermita. Tiene entrada en arco, y en su clave lleva talladas la abreviatura JHS y la cruz de Malta. Al lado de este caserío encontramos una extraordinaria calera de estilo francés, utilizada como horno de calcinación para la cal utilizada en el campo.

### 7 Caserío Bortanea

Este caserío reformado se compone de varios elementos, de los cuales el más interesante es el situado al norte, con su pared datada en la Edad Media (siglos XV y XVI). En la misma encontramos una entrada con arco de medio punto y dos ventanas conopiales, junto a varias saeteras.




© PASTAIN



## Alto de Santiagomendi

### 8 Cumbre de Santiagomendi

Desde la cumbre de Santiagomendi disfrutamos de una panorámica extraordinaria. Ante nuestros ojos tenemos todo el tramo de costa entre Baiona y San Sebastián, junto con los montes de Gipuzkoa y Navarra. Además, este lugar es una importante parada en el ramal del Camino de Santiago que discurre por la costa, tal como lo atestigua el principal edificio que encontramos. Así, Astigarraga se ha convertido en uno de los principales lugares de culto del apóstol en Gipuzkoa. Del mismo modo, por este lugar pasaba el antiguo camino que unía las tierras del Bidasoa, desde la zona de Irun y Oiartzun, con Hernani y el interior de Gipuzkoa. A partir de 1998 se realizaron diversas excavaciones arqueológicas en la zona sur de la cumbre, que han dado como resultado el descubrimiento de un poblamiento de la Edad del Hierro (800-19 a.C.), defendida por un muro de piedra y rodeada por fosos. Este patrimonio arqueológico es de los más importantes de la Edad del Hierro encontrados en Gipuzkoa.



© UDAL FOTOTEKA

Fotografía realizada desde la cumbre de Santiagomendi

### 9 Ermita de Santiagomendi

